

# Juan Garmendia Larrañaga

## Erritualak eta landareak euskal herri-medikuntzan: osasuna sendabelarren bitartez



35



**1990.** Rito y fórmula en la medicina popular vasca : la salud por las plantas medicinales / Juan Garmendia Larrañaga. – 1ª ed. – Donostia : Txertoa, 1990. – Castellano, euskera.

**1991.** Rito y fórmula en la medicina popular vasca : la salud por las plantas medicinales / Juan Garmendia Larrañaga. – 2ª ed. – Donostia : Txertoa, 1991. – Castellano, euskera.

**1998.** Rito y fórmula en la medicina popular vasca : la salud por las plantas medicinales / Juan Garmendia Larrañaga. – En : Medicina popular. Ritos funerarios. Léxico etnográfico vasco. – (Euskal Herria. Etnografía. Historia. Juan Garmendia Larrañaga. Obra Completa ; 6). – Donostia : Haranburu Editor, 1998. – Castellano-euskera

**2006.** Rito y fórmula en la medicina popular vasca / Juan Garmendia Larrañaga. – 3ª ed. – Donostia : Txertoa, 2006. – Castellano, euskera.

## 2007

---

Erriitualak eta landareak euskal herri medikuntzan / Juan Garmendia Larrañaga; azala Javier Juanes. – Donostia : Eusko Ikaskuntza, 2007. – 48 or. – (Juan Garmendia Larrañaga bilduma ; 35). – ISBN : 978-84-8419-098-1. – Julio Caro Barojari eskainitako edizioa.

---

### Azala:

Javier Juanes



## EUSKO IKASKUNTZA - SOCIEDAD DE ESTUDIOS VASCOS - SOCIÉTÉ D'ÉTUDES BASQUES

Institución fundada en 1918 por las Diputaciones Forales de Álava, Bizkaia, Gipuzkoa y Navarra.  
Miramar Jauregia - Miraconcha, 48 - 20007 Donostia - Tel. 943 31 08 55 - Fax 943 21 39 56  
Internet: <http://www.eusko-ikaskuntza.org> - E-mail: [ei-sev@eusko-ikaskuntza.org](mailto:ei-sev@eusko-ikaskuntza.org)

Fotokonposaketa: Michelena artes gráficas. Astigarraga  
Digitalizazioa eta argitalpen elektronikoa Gipuzkoako Foru Aldundiaren dirulaguntzarekin

# Erritualak eta landareak euskal herri medikuntza

Juan Garmendia Larrañaga

Orria

---

Kredituak

<b>I. Kapitulumua. Arnas aparatuko gaixotasunak</b> .....	5
Katarroa .....	5
Petxua garbitzeko .....	5
Petxuko katarroa sendatzeko .....	6
Katarroa .....	6
Petxuko katarroa samurtzeko .....	7
Katarroa .....	7
Pleura .....	8
<b>II. Kapitulumua. Liseri-apartatuko gaixotasunak</b> .....	9
Urdailleko mina .....	9
Tripako miña .....	9
Triparrabia sendatzeko .....	10
<b>III. Kapitulumua. Sistema kardiobaskularreko gaixotasunak</b> .....	11
Tentsioa jeitxitzeko .....	11
<b>IV. Kapitulumua. Nerbio-sistemako gaixotasunak</b> .....	13
Buruko miñarentzako .....	13
Nerbioak jeisteko .....	13
Lo ezin egitea sendatzeko .....	13
<b>V. Kapitulumua. Lokomozio-aparatuko gaixotasunak</b> .....	15
Belaunean erreuma aidea .....	15
Zain-tiratua .....	15

<b>VI. Kapitulua. Gaixotasun infekziosoak</b> .....	17
Barizela .....	17
Gangaillak sendatzeko .....	17
Disipela .....	17
<b>VII. Kapitulua. Gaixotasun neoplasiak edo tumoreak</b> .....	19
Minbizia .....	19
Sarkoma .....	19
<b>VIII. Kapitulua. Umeen iztondoko etenari aurka egiteko erritua</b> ...	21
Etena .....	21
<b>IX. Kapitulua. Pixa egin arazteko</b> .....	23
Pixa egiteko .....	23
<b>X. Kapitulua. Larruazaleko gaixotasunak</b> .....	25
Larruazaleko lesio eta erasanak .....	25
Urratu eta ebakientzako .....	25
Zauria sendatzeko .....	25
Zauria sendatzeko .....	26
Errena ateratzeko .....	26
Ebakia sendatzeko .....	26
Pikatua edo moztua sendatzeko .....	26
Ebakia garbitu eta sendatzeko .....	27
Zartada .....	27
Zartada eta zauria .....	27
Golpea sendatzeko .....	27
Errearentzat .....	28
Errea sendatzeko .....	28
Ekzema .....	29
Legena sendatzeko .....	29
Kabatxua desegiteko .....	29
Kabatxua sendatzeko .....	29
Kalitxea sendatzeko .....	30
Kabatxua sendatzeko .....	30
Sugearen ozka sendatzeko .....	30

Anditsu eta zornezko infekzioak eta bestelako larruazaleko prozesuak .....	31
Aunditsua eltzeko .....	31
Izurritua eltzeko .....	31
Zornea ateratzeko .....	31
Pixike eltzeko .....	32
Pasmao sendatzeko .....	32
Pasmao sendatzeko .....	33
Pikorra lertzeko .....	33
Aunditsuaren zornea tiratzeko .....	34
Berezkoa .....	34
Zingrea (Zingere?) .....	35
Zingiria .....	35
Berezkoa .....	35
Zingiria .....	36
Pisika sendatzeko .....	36
Antras sendatzeko .....	36
Sarna sendatzeko .....	37
<b>XI. Kapitulua. Gaixotasun odontologikoak .....</b>	<b>39</b>
Agiñeko miñarentzat .....	39
Agiñeko miña iltzeko .....	39
Flemoia edo aunditua sendatzeko .....	40
Flemoia sendatzeko .....	40
Agiñeko anditsua lertzeko .....	40
<b>XII. Kapitulua. Gaixotasun otorrinolaringologikoak .....</b>	<b>41</b>
Eztarriko miñarentzat .....	41
Eztarriko miña kentzeko .....	41
Zintzurreko miñarentzat .....	41
Eztarriko miña sendatzeko .....	41
Zintzurreko pasmoa sendatzeko .....	42
Sinusitis sendatzeko .....	42
Sinusitis sendatzeko .....	43
Belarriko miñarentzat .....	43

<b>XIII. Kapitulua. Begietako gaixotasunak</b> .....	45
Begietako negarra sendatzeko .....	45
Begietako miña sendatzeko .....	45
Begietako miñarentzat .....	45
<b>Landara-izenen aurkibidea euskaraz eta beren egokiera gaztelaniaz</b> .....	47

# I. Kapituluia

## Arnas aparatuko gaixotasunak

---

### KATARROA

Surtan ardaue Kazuela baten ipini eta gari urune saixe Kendu barikoa bota eta dena ondo egosi. Gero trapu bixen erdixen jarri eta oztu arte bularran ipiñi<sup>1</sup>.

### PETXUA GARBITZEKO

Bermena freskuak artu eta kutxillo edo guraiziakin txiki txiki egin.

Zartagin olio ttantto bat jarri eta bermenak bota, epeldu polliki polliki eta naastu. Gero arrautzaren zuringoa batitu eta tortilla egin. Ondoren trapu bat artu eta onen gaiñean zartagjkoa zabaldu. Trapua doblatu, emplastua erdin gelditu dedin, eta petxun jarri benda batekin lotuta.

Au gabeen, oerakoan jarri eta goizean kendu, onela mejora sumatu arte<sup>2</sup>.

### KATARROA

Ontzi baten ure irakitten jarri, eta oni liña-azie eta mostaza atxaparka bana bota. Gero malba belarra eta erromero zoztorra, adar bat edo bi, ontzi beren ur artan sartu.

Ure irakiten dagoela eltze gaiñean bi egur zearka jarri, batetik bestera tarte duela. Bereala, gaxoa silla baten exeri eta anakak, oiñutsik, aipatutako egur gaiñean jarri, manta batekin estaliz, lurriñe bukatu arte<sup>3</sup>.

---

1. Aramaio (Ibarra): Juana Urcelay Leturiaga, 84 años. El 18 de agosto de 1981.

2. Asteasu: Agustín Arteaga Sarasola, 58 años, Caserío «Bulano». María Jesús Arruti González, 51 años. Caserío «Muño Berri». El 15 de agosto de 1988.

3. Berastegi: Amada Etxeberria Matxinea, 72 años. Caserío «Borda Txuri». El 4 de abril de 1975.

## **PETXUKO KATARROA SENDATZEKO**

Iru bat eskukada berbena belarrak uretan garbitu eta ondoren legortzen utzi. Gero txiki-txiki egin labana batekin, ool baten gaiñian jarriaz.

Zartagi baten belarrak prejitzeko ainbataiñe olio jarri. Olio ontara belarrak bota. Ondoren prejitu erabat txiurto edo beztu gabe. Prejiketa au egin bitartean iru arrautzen zuringoak batitu, platera baten eskusardea erabiliaz, eta zartagira usttu. Eskusardeakin dena naasi tortilla bat bezela utzirik. Bereala trapu zuri lodi baten gaiñera atera eta beste zapi meeago bat gaiñean jarri, eta alden beroena miña dagon lekuan utzi trapu batekin lotuaz, ongi oztu arte. Au egunean bein, iru egunez<sup>4</sup>.

## **KATARROA**

Ontzi baten surtako brasa jarri eta oni eskukada bat azukre pixkanaka bota. Gero lurriñe artu arpegia burutik beera trapu batekin tapatuz<sup>5</sup>.

## **KATARROA**

Baso bat ur sagarra eta tipula baten puskekin gauzez leio kanpoan utzi.

Goizean pasadore baten igaro ondoren, baraurik eran. Gauza au bera iru egunetan errepikatu<sup>6</sup>.

## **KATARROA**

Ontzi baten ura irakiten jarri eta ur ontara belar azia bota, iru bat esku edo geiago. Eria biluztu eta kataderan jarri, ontzia ankatartean duala. Manta batekin gorputza estali eta uraren atsa artu, ongi izarditu arte. Ondoren legortu eta bereala oatzean sartu<sup>7</sup>.

## **KATARROA**

San Joan belar bedeinkatuetatik eskukadatxo bat uretan irakin eta oera-koan ankatako baiñua artu ur bero artan, egun baten edo bitan<sup>8</sup>.

---

4. Betelu: María Dolores Goicoechea Sotíl, 47 años, Caserío «Ipiarrea». El 29 de agosto de 1974.

5. Elduayen: Joaquina Jauregui Marzol, 61 años. Casa «Toki Alai». 22 de agosto de 1982.

6. Elduayen: María Jauregui Marzol, 72 años. Caserío «Ostatu Berri». El 23 de agosto de 1984.

7. Errazu (Erratzu): Francisco Aizpurua Urriza, 57 años. Casa «Uteregia». El 4 de agosto de 1985.

8. Ezkio-Itsaso: Nicolasa Baztarrica Irizar, 60 años, Angel Idiaquez Zabalo, 60 años. Casa «Concejo». El 19 de julio de 1971.



## **PETXUKO KATARROA SAMURTZEKO**

San Joan goizean bedeinkatutako belarretatik San Joan belar izenez deituak atzaparkada bat artu eta ontzi baten egosi. Gaixoa silla baten exeritzen da, ontzi au lurrean utzirik.

Burutik beera manta bat duala, belar oien ekea artu bear du eta ondoren, ondo tapatuta, oatzera joan. San Joan belar oietako batzuk auek ziren: San Joan loreak, gaztain ostoa, geizi ostoa, intxusa ostoa, lizar ostoa, arrosak eta intxaur ostoa<sup>9</sup>.

## **KATARROA**

Ontzi aundi baten surtako autsa jarri eta urakin san Joan sendorren belar bedeinkatu mordoskatixo bat ondo egosi. Gero gaixua silla baten jarri burutik beera manta batekin, lurruna artzeko. Denpora bertan anak ortosik kalderan sartu eta ura eta autsakin belaunetatik beera igurtzi, ordulaurden bat ingurun<sup>10</sup>.

## **PETXUKO KATARROA SAMURTZEKO**

San Joan goizean bedeinkatutako belar onak izena daramaten auetatik eskukada bat eltzean egosi. Gaixoa exeri ontzia lurrean duala, eta burutik beera manta batekin tapaturik eta petxua larrugorrian, eltze onek botatzen dun lurriña artu. Belar onak, San Joan loreak, intxaur ostoa eta garoa dire<sup>11</sup>.

## **KATARROA**

Eskukadatxo bat berbena belarra egosi litro bat uretan eta bost kolpetan artu: Oeratzerakoan eta goizean, beti baso erdi bat. Ondoren berdin urrengo goizean eta oeratzerakoan, eta berriro beste baso erdi bat biramunoan, edozein ordutan<sup>12</sup>.

---

9. Ezcurra (Ezkurra): Juan Bautista Mariezcurrena, 72 años. Casa «Amonea».

10. Oñati (Arantzazu): Juan Urcelay Biain, 66 años. Caserío «Soroandietia». El 19 de octubre de 1986.

11. Oreja: María Malcorra Arrastoa, 55 años. Caserío «Altziturríta». El 1 de junio de 1982.

12. Saldias: Martín Mutuberria Erasun, 74 años. Casa «Olazarrea». El 9 de agosto de 1983.

## PLEURA

Berberanak ondo xeetu labana batekin, eta zartagiña batian olio ttantta batekin pixkat prexitu. Ondoren arrautz xuringua naasi, tortilla bat bezala egiñez.

Gero apobelarrak artu eta auen gaiñera zartagiñeko tortilla atera. Bereaxe, beroan, zapi baten gaiñin zabaldu eta bizkarrean paratu. Gaubaz paratu eta ondoko egun arte iruki, zapi edo toalla batekin lotuta<sup>13</sup>.

## PLEURA

Berbenak bildu eta berdean eskukadatxo bat goaixikin txikitu. Zartagin olio pixka bat jarri baatxurikin, eta olio bero-bero dagoenean berbenak zartagira bota eta buelta bat eman ondoren platera batera atera.

Baiñan aurretikan preparatuta eduki arrautzen zuringo goratue edo arro-tue, eta zartagitik ateratakoarekin plateran dena naastu, tenedore batekin.

Gero, beroan, zapi batean zabaldu eta gaiñetik beste zapi bat ipiñi eta miña dagon leku berean jarri, bizkar-ezurra ikutu gabe.

Ondoren oyal batekin lotu. Gauz au egunean bi aldiz egin. Goizean eta gaubean, sendatu arte.

Baiñan, baraurik, pasmo belarra egosi eta katillukada bat artu. Gaubez enplasto jarrita dagoela, limoi egosiaren ude edan, epelean eta limoia lau puska egin ondoren<sup>14</sup>.

---

13. Donamaria: Rosa López Galilea, 56 años. Casa «Micheltona». El 6 de agosto de 1984.

14. Errazquin (Errazkin): María Martincorena Muguerza, 79 años. Casa «Petrinea». El 16 de noviembre de 1986.

## II. Kapitula

### Liseri-aparatuko gaixotasunak

---

#### URDAILLEKO MINA

Andre bat eta bere alaba kanposantura joaten ziren eta iru difuntu lurperatuta zeuden tokitik lur pixka bana artzen zuten, etxean egiten zuen txokolateari naastutzeko. Txokolate au eriak artzen zun<sup>15</sup>.

#### URDAILLEKO MINA

Eriak, San Joan goizean bedeinkatutako uraren kuxeta erdi bat artu, bein bakarrik<sup>16</sup>.

#### TRIPAKO MIÑA

Zartagin olio berotzen jarri eta atzaparkada edo eskukada bat manzanil olio artara bota eta perdigatu.

Gero, olio-manzanil auek zapi baten zabaldu eta txilbor gaiñean fajatuta jarri. Oztutakoan kendu<sup>17</sup>.

---

15. Donamaría: Eulalio Orbegozo Arrieta, 69 años. Casa «Suainea». El 7 de septiembre de 1986.

16. Maia (Amaiur): Juan Mazondo Amorena, 78 años, Casa «Errekaldea». El 4 de agosto de 1983.

17. Berastegi: Amada Etxeberría Matxinea, 72 años. Caserío «Borda Txuri». El 4 de abril de 1975.

## **TRIPARRABIA SENDATZEKO**

Espiritu Santuari ogeitabat Aitagure errezatu. Bakarrik errezatu bearda, gaxoaren izena aipatuaz eta Espiritu Santuari sendatzeko eskatuaz.

Aurren aurrena gurutze batekin Aitaren egin eta nor bere buruari esan: Ogeitabatgarren Aitagurea. Au errezatu ondoren, bere buruari esan: Ogeigarren Aitagurea. Amabostgarrena errezatzean gurutzearekin Aitaren egin eta Amalau-garren Aitagurea esanez edo pentsatuz jarraitu.

Zazpigarren Aitagurea esan aurretik gurutzearekin Aitaren, eta berdin azke-nekoaren –errezatzailearentzat aurreneko Aitagurea– aurretik. Ots, asieran eta zazpi Aitaguretik zazpi aitagurea Aitaren egin.

Onela iru egun segidotan, ordu berean<sup>18</sup>.

---

18. Rentería: Carmen Lujambio Inciarte, 74 años. Caserío «Zamalbide». El 9 de abril de 1989.

### **III. Kapituluia**

## **Sistema kardiobaskularreko gaixotasunak**

---

#### **TENTSIOA JEITXITZEKO**

Elorri beltzaren adar batzuk uretan egosi eta goizean baraurik ur au kafe katillo baten artu, iru edo lau egunez<sup>19</sup>.

#### **TENTSIOA JEITXITZEKO**

Karraskillo ezpal bat uretan egosi eta goizean baraurik ur au kafe katillo baten artu, iru edo lau egunez<sup>20</sup>.

---

19. Donamaría: Rosa López Galilea, 56 años. Casa «Micheltona». El 6 de agosto de 1984.

20. Donamaría: Rosa López Galilea, 56 años. Casa «Micheltona». El 6 de agosto de 1984.

## IV. Kapituluia

### Nerbio-sistemako gaixotasunak

---

#### **BURUKO MIÑARENTZAKO**

Gatza piskat katillu baten jarri eta ozpiña bota gatza urtutzeko modun. Ontarako gatza eta ozpiña otzean ondo nastu. Gero zapi txuri bat ozpin eta gatz ontan busti, dobla-dobla egin eta kopeta betean jarri, paiñuelo batekin atzekaldean lotu eta oiera joan<sup>21</sup>.

#### **BURUKO MIÑARENTZAKO**

Katillu batera ozpiñe bota eta emen oyal bat busti eta kopetean jarri, legortu arte. Bear bada gauza bera berriro egin eta era berean larremillu salda artu, dena baraurik obeki<sup>22</sup>.

#### **NERBIOAK JEISTEKO**

San Joan goizean bedeinkatutako tila lorean eskukada txiki bat egosi eta goizean baraurik ur artatik baso bat eran, iru egunetan segidon<sup>23</sup>.

#### **LO EZIN EGITEA SENDATZEKO**

Gertrudis Zubillagaren atautxia azkenetan zegoala, on Benantzio, Goizuetako erretoreak –bera Etxarri-Aranatzen jaioa–, eskatu zion errosarioa erreza-

---

21. Berastegi: Amada Etxeberría Matxinea, 72 años. Caserío «Borda Txuri». El 4 de abril de 1975.

22. Leiza (Leitza): Simona Zabaleta Arrarás, 80 años. Casa «Peritza». El 31 de agosto de 1985.

23. Leaburu: Valentín Múgica Aramburu, 85 años. Caserío «Maala». El 30 de junio de 1985.

tzen ari zan bitartean, gaixuak eskuetan zeukan kututzeari eusten laguntzeko.

Inpresio arekin gau guztin loik egiten ez zuala gelditu zan, obero joateko bildurrez.

Apaizari gertakizun au adieraziaz, sendatzeko erremedioa bezela aginduzion urrena errin ilzen zanari, illobian lur pixka bat botatzeko. Onela Gertrudis Zubillaga sendatu zan, orain dela irurogei bat urte<sup>24</sup>.

---

24. Goizueta: Gertrudis Zubillaga Arrieta, 84 años. Casa «Fuentenea». El 21 de septiembre de 1986.

## **V. Kapituluia**

### **Lokomozio-aparatuko gaixotasunak**

---

#### **BELAUNEAN ERREUMA AIDEA**

San Joan belar atzaparkada bat egosi –San Joan loreak, arrosak eta intxusa, lizar eta intxaur ostoak, bereziki–, eta uretan egosi. Gaixoa silla baten exeri ankatartean ontzia lurlean utzirik. Gaixo dagon belauna manta batekin estali eta ontziko ekea berari eman, esanez: Belaun ontatik pasa dedilla bestera, ontatik joan dedilla emendik.

Ontziak beroa galtzen duanean oatzera joan, belauna ondo estalita<sup>25</sup>.

#### **ZAIN-TIRATUA**

Olioa, ardoa eta gatza berotu eta ondo naastu ontzi batean. Emen, bere-ala zapi zuri bat busti eta aldan beroena gaxo dagon ezur gaiñean jarri, lotuta utziaz<sup>26</sup>.

---

25. Ezcurra (Ezkurra): Miguel Antonio Mariezcurrena Tellechea, 81 años. Casa «Kastenea». El 13 de diciembre de 1982.

26. Tolosa: María Olaizola Zuaznabar, 68 años. El 15 de enero de 1975.



## VI. Kapituluia

### Gaixotasun infekziosoak

---

#### BARIZELA

Gaizki dagon aurra mandiri baten bildu. Mandiria kendu eta zerriak lo egi-ten dun tokin umea bueltaka pixka bat ibili. Zerriaren kamañeko zabor pixka batekin pikorra idortzi. Gero mandiri berarekin umea berriz bildu eta biramone arte eduki. Ondoren umea garbitu<sup>27</sup>.

#### GANGAILLAK SENDATZEKO

Irunako iru monttonetan gatz larria jarri. Gero, baraurik, irunako auen bakoitza eskuan artu; gatz oneri listua bota, Aitaren egin eta arnasik artu gabe kokotz azpian erabili, onela esanez:

Gangaillak, bederatzi bederatzi; zortzi zortzi; zazpi zazpi; sei sei; bost bost; lau lau; iru iru; bi bi; bat bat; zirt-zart, gangaillak fuera.

Beste bi pillakin gauza bera egin, eta ondoren, beti baraurik, berdin gatz guztia batera artuaz. Au egin ondoren gatza surtara bota. Onela iru egunetan segidan<sup>28</sup>.

#### DISIPELA

Kazo batean ura irekiten jarri eta ur ura irekiten dalarik palangana batera bota. Gero kazo palanganan barnean ipurdiz gora ipiñi eta gaiñan bi erramu

---

27. Zubieta (Navarra): Josefa Loyarte Elizalde, 45 años. Casa «Fermiñenea». El 11 de agosto de 1984.

28. Zubieta (Navarra): Juana Ibarra Indacochea, 52 años. Casa «Dendarienea». Josefa Loyarte Elizalde, 45 años. Casa «Fermiñenea». El 11 de agosto de 1984.

osto gurutzean paratu. Auen gaiñean aisturrek eta orraxa, auek ere gurutze tankeran.

Gero arpegia manta batekin tapatu eta laiñoa artu eta izardie atera.

Ure kazoaren barnean biltzen da, eta esan bezala izerditan egon laiñoa bajatu artio<sup>29</sup>.

---

29. Ciga (Ziga): Francisco Arrechea Irigoyen, 63 años. Marcelina Elizalde Etxenike, 58 años. Casa «Arrontxea». El 4 de julio de 1982.

## VII. Kapituluia

### Gaixotasun neoplasiak edo tumoreak

---

#### MINBIZIA

Gaxoak minbizia pantorrilla baten zuan, eta egunero aragi puska bat jar-tzen zioten, eta aragi au gaitzak jaten zion.

Egun baten zapo aundi bat bizi-bizirik ikusi zuan eta bai azkar asko zapoa miñaren gaiñean jarri, esanez: *Jan bear baldin badek, jantzak*. Zapoak minbi-zia jan ondoren, gizona sendatu egin zen<sup>30</sup>.

#### SARKOMA

Nere berri-emantzaillearen etxean gaixoari koskor bat iztarrean atera zitzaion. Operau eta koskorrak kendu; baiñan berriro atera eta azitzen joan.

Au sendatzeko esan zioten sardin zarrakin ibilitako ontzi bateri ipurdian zulo batzuek egiteko, barruan bi zapo bizirik sartzeko eta tapea itxi. Ontzi au koskor gaiñean jarri eta bendaz lotuta utzi.

Gaur zapoak jarri eta biar, urrengo egunean, bizirik irauten bazuten, gai-xoa sendatzeko esperantzea izate zan. Akabatzen baziren, esperantzea galdu. Nere adiskidearen etxean zapoak akabatu egin ziren<sup>31</sup>.

---

30. Areso: Vicente Barandarain Lazcano, 57 años. Casa «Garaikoetxea». El 30 de junio de 1971.

31. Ezkio-Itsaso: José Miguel Zufiría Zufiría, 75 años. Casa «Alustizaenea». El 7 de julio de 1988.

## VIII. Kapituluia

### Umeen iztondoko etenari aurka egiteko errittoa

---

#### ETENA

Donamariako andre batek aritz zuaitzaren kasko aldea burni ziriz lertzea agintzen zuen.

San Joan bezpera gaubez, leenengo amabi ezkilletakoko bat entzun aurretik –bi aldiz jotzen bait dira–, iru gizon Joan izenekoak zuaitz kaskora igota zeuden, bakoitza bere adar baten gainean, beraietako batek aur gaixoa larrugorrik zeukala.

Iru gizon auek zuaitz lertuaren inguruan arkitzen ziren, eta aietako batek aurreneko ezkila soiñuarekin bat-batean aurra beste baten eskuetan jartzen zun zuaitz zulotik pasatuz eta esanez: Tori Joan; ume artzailleak, berriz, erantzuten zun: Ekatzu Joan. Irugarren gizonak umea zuaitz pitzaduratik arturik, bat-baten adierazten zun: Biba San Joan. Esandako au iru aldiz bete bear zuten bigarren amabi ezkilllek ixildu baiño leen. Bestela etzun balio.

Baiñan gauzak onela, urte batean aur larrugorria oztu eta il egin zen. Nere berriemantzaillearen aitak, Joan Bautista izenekoak –Joan Bautista Orbegozo 1956 garrenean illa–, ezagutu zun sendagintza rito magiko au, eta bai berari partaide izatea deitu ere, ezezkoa erantzunez<sup>32</sup>.

---

32. Donamaria: Eulalio Orbegozo Arrieta, 69 años. Casa «Suainea». El 7 de septiembre de 1986.

## **IX. Kapituluia**

### **Pixa egin arazteko**

---

#### **PIXA EGITEKO**

Bost adar ollarpoztana litro bat uretan egosi, eta au lau kolpetan artu, egunian bi aldiz, bat, baraurik obe<sup>33</sup>.

---

33. Saldias: Martín Mutuberria Erasun, 74 años. Casa «Olazarrea». El 9 de agosto de 1983.

## X. Kapituluia

### Larruazaleko gaixotasunak

---

#### LARRUAZALEKO LESIO ETA ERASANAK

##### Urratu eta ebakientzako

Zartagin olioia jarri eta epeldu. Olio epel ontara pasmo belarra, plantilla belarra, txindorri belarra eta berbena belarra xorta txiki bana bota, txiki-txiki egin ondoren. Baita ere baatxuri ale bat txikitua, jaboia eta argizari puskatxo bana oliotara bota.

Ondoren zartagia su motelean jarri, belarrak legortzen asi arte, ogei bat minutun. Gero irazi itxi batetik ontzi batera pasa. Azkenik ontzia estali, ukenduak garbi iraun dezan. Au erabili bear danean beatz mutur batekin artu, ebaki gaiñean zabaldu, gas-oial batekin estali eta zapi batekin lotu. Au egunean bein<sup>34</sup>.

##### Zauria sendatzeko

Karakolak bildu eta bere azal edo maskor da guzti txiki-txiki egin. Gero olio pixka baten zartagin pasa eta zapi baten gaiñera bota eta zabaldu. Zapi au bildu eta epelean zauriaren gaiñean jarri, trapu batekin lotuta. Gaubez jarri eta goizean kendu. Onela sendatu arte<sup>35</sup>.

---

34. Andoain: Inés Goizuri Ayo, 64 años. Casa «Bide-Ondo». El 27 de agosto de 1984.

35. Gainza (Gaintza), (Valle de Araiz): Micaela Otamendi Otamendi, 47 años. Caserío «Matxindo». El 26 de diciembre de 1977.

### **Zauria sendatzeko**

Zartagi baten eun gramo olio jarri; berrogeitamar gramo ardo eta beste orrenbeste koñaka; ogeitamar gramo anís; ogei gramo jaboi usai gozokoa, beste ogei gramo erretxiña eta berrogeitamar gramo argizaria.

Ondoren au dena prejitu orduerdi baten, indar gutxiko suan eta naastutzeari utzi gabe. Gero, oztu arte naastutzeari ez utzi.

Ostutzen danian, ukendue ontzi batera pasa. Ibili bear danean arizko trapura bota, kutxarilla batez baliaturik, eta zaurituaren gaiñean zabaldu, au ur epeletan garbitu ondoren. Azkenik bendaz lotu.

Erabiltzea, asieran egunian bi aldiz egin, eta gero, zauritua sendatzen dijoan bezela, egunean bein<sup>36</sup>.

### **Errena ateratzeko**

Artzen da San Joan egunean bedeinkatutako elorri xuri baten errena eta onekin beste errena ateratzen da, gaixtotu gabe<sup>37</sup>.

### **Ebakia sendatzeko**

San Joan egunean bedeinkatutako belarrak egosi eta ur arekin ebakie garbitu<sup>38</sup>.

### **Pikatua edo moztua sendatzeko**

Minaren gainean suhar hostoa jarri eta oyal batekin lotu<sup>39</sup>.

### **Ebakia sendatzeko**

Zakur mia belar ostoa bat artzen da, eta beroan edo otzean miñaren gaiñean ezarri, txerrenda batekin lotuaz<sup>40</sup>.

---

36. Hernialde: Ciriaco Arana Zubelzu, 75 años. Casa «Olaberaza». El 14 de agosto de 1985.

37. Irazoz (Iraitzoz) (Valle de Ulzama): Restituto Oyarzun Grajirena, 75 años. Casa «Aritzeneña». El 14 de agosto de 1988.

38. Linzoain (Lintzoain): Segundo Torrea Usoz, 83 años. Casa «Martxan». El 5 de octubre de 1986.

39. Musculdy (Muskildi): Julie Agueraray, 57 años. Casa «Olhasso». El 17 de septiembre de 1982.

40. Ochagavia (Otsagi): Teófilo Echeberri Contín, 70 años. Casa «Echeberri». El 20 de agosto de 1985.

## **Ebakia garbitu eta sendatzeko**

Ukendu bat prestatu belar auekin: Osiña, pasmobelarra, berbena, sube belarra edo illarrondokoa, txanpon belarra, zaingorrik, malma eta plantilla belarra.

Auek denatetik atzaparkada bana artu eta guaizikin txikitu eta eltze batean jarri, olioaz tapatuta. Egosten ordu erdi batean eduki ondoren argizari puska bat bota. Au urtzen danean dena txino batian pasa beste ontzi batera eta oztutzen utzi. Gero ontzi au tapaz itxi.

Bear danean, ebakiaren gaiñean beatz batekin ukendua zabaldu eta paper mee batekin estali, benda erantsi ez dedin. Esandako au egunean bi aldiz egin<sup>41</sup>.

## **Zartada**

Osiñek otzean eta mailluz zanpa-zanpa egin, belarraren zumua ondo atera arte. Zumu oneri pertsonan pixa ontzi baten naastu. Trapu bat bertan busti eta zartada artutako lekuan lotuta jarri<sup>42</sup>.

## **Zartada eta zauria**

San Joan egunean bedeinkatutako belar batzuek egosi eta miñari lurriñe eman, au zapi batekin estali ondoren. Gero, zauria edo zartada olio gordiñakin igurtzi<sup>43</sup>.

## **Golpea sendatzeko**

Eun gramo berbena belarra artu eta baita ere beste eun plantilla belarra; larogei gramo iodo belarra; berrogeitamar gramo pasmo belarra; eta beste berrogeitamar argizaria; ogeitamar gramo olluan manteka eta irureun eta berrogeitamar olio fiña.

Olio au zartagin irakin eta onei belar guztiak txiki txiki eginda bota, eta baita ere argizaria eta oillo manteka. Denak indar gutxiko suan irakin, naastuzeari utzi gabe, zurezko kutxara txiki batekin. Ondoren, oztu arte naasteari ez utzi. Oztutakoan irazi batetik barrena tapa dun ontzi batera pasa.

---

41. Tolosa (Barrio de San Esteban): María Pilar Errazkin Astiazarain, 38 años. Caserío «Malaka». El 25 de septiembre de 1988.

42. Berastegi: Amada Etxeberria Matxinea, 72 años. Caserío «Borda Txuri». El 4 de abril de 1975.

43. Amezketa (Barrio de Ugarte): Micaela Amenabarro Iturrioz, 65 años. Caserío «Zuin». El 30 de junio de 1985.



Ukendu au bear danean, beatz muturrean artu eta miña dagon tokin igurtzi, iru aldiz egunean<sup>44</sup>.

### **Errearentzat**

Intxensuen adarra zuritu eta mintze labana batekin kendu eta txikitu. Oliotan prejitu argizari pixka batekin. Prejitzen danean irakazki bat erabiliaz katillu batera atera eta errea otzean igurtzi, oillo luma batekin<sup>45</sup>.

### **Errearentzat**

Artu sakutie eta lenengoko azala kendu eta barrungoarekin txiribilixek egin. Auek olixotan prijitu eta otzitxuta gero arizko trapuek antxe busti eta errian gaiñian jartzeko gorde. Trapue erre gaiñien loiketan danien, ipiñi berrixe<sup>46</sup>.

### **Errea sendatzeko**

Intsusari gaiñeko kirrinka edo azala kendu. Barrengo edo bigarren kirrinka oriya labanakin arraskatu eta zartagiko oliotara mordoxkada bat bota. Oliotan xiortu eta atera. Gero olio artara ardi sebo pixka bat eta argizari puru apur bat bota. Dena zartagin ondo naastu eta ontzi garbi batera pasa, irazi itxi baten bidez, eta ozten utzi.

Bear danean erre gaiñean eskuarekin zabaldu eta arizko zapi batekin estali eta lotu. Au egunean iru edo lau aldiz egin<sup>47</sup>.

### **Errearentzat**

Intxusaren bigarren azala kendu, labana batekin arraska arraska egijenez. Gero oliotan prejitu eta argizari pixka bat bota. Oratzi baten igaro ondoren ontzi baten gorde.

Bear danean errearen gaiñean ipini eta trapu batekin lotuta utzi.

---

44. Hernalde: Ciriaco Arana Zubelzu, 75 años. Casa «Olaberaza». El 19 de agosto de 1985.

45. Amezketeta (Barrio de Ugarte): Micaela Amenabarro Iturrioz, 65 años. Caserío «Zuin». El 30 de junio de 1985.

46. Aramaio (Ibarra): Juana Urcelay Leturiaga, 84 años. El 18 de agosto de 1981.

47. Goizueta: Gertrudis Zubillaga Arrieta, 84. Casa «Fuentenea». El 21 de septiembre de 1986.

Gaubez jarri eta goizean kendu, bereala berriro ipini arratse arte, eta onela jarraitu<sup>48</sup>.

### **Ekzema**

Aiena edo basurde patata artu, eta azala kendu ondoren mina igurtzi, egunean bi aldiz edo geiagotan<sup>49</sup>.

### **Legena sendatzeko**

Ollarraren gandorrari ebaki txiki bat egin eta aren odolakin zaplada edo legena igurtzi. Egunean bein, iru egun segidotan<sup>50</sup>.

### **Kabatxua desegintzeko**

Zapo bizia artu eta pote baten sartu eta tapa itxi. Gero, kabatxua duna dabillen ingurun ontzia zintzilikatu lista batetik, agan sartuta dagon iltzetik.

Zapoa desegintzen ari dan bezela, kabatxua ere izkututzen dijoa<sup>51</sup>.

### **Kabatxua sendatzeko**

Zazpi ostiral errezkaran urdai azal batekin, beti batekin, kabatxua igurtzi<sup>52</sup>.

### **Kabatxua sendatzeko**

Kabatxua dunaren oiaren azpian zapo bizi bat ontzi zulorik gabeko tapa dun baten barnean utzi. Zapoa akabatzerako kabatxua izkututzen da<sup>53</sup>.

---

48. Inza (Intza) (Valle de Araiz): Cándido Goikoetxea Otermin, 72 años. El 17 de octubre de 1978.

49. Oroquieta (Orokieteta) (Basaburua Mayor): Pilar Lazcano Mariezkurrena, 47 años. Casa «Etxandia». El 14 de agosto de 1988.

50. Rentería: Carmen Lujambio Inciarte, 73 años. Miguel Mazizior Irigoyen, 72 años. Caserío «Zamalbide». El 4 de septiembre de 1988.

51. Asteasu: Agustín Arteaga Sarasola, 58 años. Caserío «Bulano». María Jesús Arruti González Echeverri, 51 años. Caserío «Muño Berri». El 15 de Agosto de 1988.

52. Larraul: Lázaro Tejería Amonarriz, 55 años. Caserío «Larrola». El 25 de septiembre de 1988.

53. Larraul: Lazaro Tejería Amonarriz, 55 años. Caserío «Larrola». El 25 de septiembre de 1988.

### **Kalitxea sendatzeko**

Auzan (Ultzama Baillaran), Kalitx izenarekin ezagutzen dan iturria arkitzen da, eta ango urarekin kalitxek garbitu aal dan maizena eta gero legortzen utzi.

Biramonean berdin egin eta onela jarraitu sendatu arte. Kalitxek txikitzen joaten dire eta izkutatu<sup>54</sup>.

### **Kabatxua sendatzeko**

Zapo bizia ontzi baten sartu eta ontzi au zulutxo batzuekiko tapa batekin itxi.

Kabatxua daukanari ontzi au bere zapo biziarekin erakutsi, baiña, bere-ala, gaixoak ez dakin tokin gorde.

Kabatxua dunak, ez jakiñean, zapoaren aurretik gutxienez egunean bein pasa bear du, zapoa akabatu eta legortu arte. Au legortzerako kabatxua izkutatatu egiten da<sup>55</sup>.

### **Kabatxua sendatzeko**

Sagar bat artu eta lau puska egin. Puska auekin kabatxua ondo igurtzi eta iñork ikuste eztitun toki batera bota. Au bein bakarrik egiten da<sup>56</sup>.

### **Sugearen ozka sendatzeko**

Amabirjiñari ogeitabat Salbe errezatu. Bakardadean errezatu bear dira, gaixoaren izena aipatuaz eta Amabirjiñari sendatzeko eskatuaz.

Aurren aurrena gurutze batekin Aitaren egin eta nor bere buruari esan: Ogeitabatgarren Salbea. Au errezatu ondoren, bere buruari esan: Ogeigarren Salbea.

Amabostgarrena errezatzean gurutzearekin Aitaren egin eta Amalaugarren Salbea esanez edo pentsatuz jarraitu.

---

54. Oroquieta (Orokieta): Pilar Lazcano Mariezkurrena, 47 años. Casa «Etxandi». El 14 de agosto 1988.

55. Tolosa (Barrio de San Esteban): María Pilar Errazkin Astiazarain, 38 años. Caserío «Malaka». El 25 de septiembre de 1988.

56. Tolosa (Barrio de San Esteban): Josefa Astiazarain Múgica, 63 años. Caserío «Malaka». El 25 de septiembre de 1988.

Zazpigarren Salbea esan aurretik gurutzearekin Aitaren, eta berdin azke-nekoaren –errezatzailearentzat aurreneko Salbea– aurretik. Ots, asieran eta zazpi Salbetik zazpi Salbera Aitaren egin.

Onela iru egun segidotan, ordu berean<sup>57</sup>.

## **ANDITSU ETA ZORNEZKO INFEKZIOAK ETA BESTELAKO LARRUAZALEKO PROZESUAK**

### **Aunditsua eltzeko**

Olio pixka bat zartagira bota eta epeldu. Olio epel oni berbena belarrak bota, txiki-txiki eginda. Ondoren arrautzaren zuringoa katillu baten batitu eta zartagira bota. Emen naastu-naastu egin eta tortilla bat lortu, geiegi legortu gabea. Zapi txuri baten zabaldu eta miña dagon lekuan geitxo berotu gabe jarri eta trapu edo loturaz finkatu<sup>58</sup>.

### **Izurritua eltzeko**

Ura alkanforrarekin irakiten jarri eta aal dan beroenean sartu-aterean erabili, gaixo arkitzen dan zatia<sup>59</sup>.

### **Zornea ateratzeko**

Pasmo belarrak, berbenak, illarrondokoak, zaingorrik, balsamo eta ostotxabal belarrak artu, lau eskukada denen artean.

Belar auek denak uretan garbitu, legortu eta labana batekin txikitu.

Zartagi baten litro erdi bat olio prejitzen jarri, txikitutako tipula pixka batekin, eta belar guztiek bota. Ondoren dena prejitu oso txiurtu edo beztu gabe. Azkenik, irakiten daudela, argizari puru apurtua exkuxka bat bota, denean errezago zabaltzeko.

Oztu baiño leen, dena epela dagonean, irazki batetik nai den neurriko ontzitara pasa, albait ontzi txikitara.

---

57. Rentería: Carmen Lujambio Inciarte, 73 años. Miguel Macicior Irigoyen, 72 años. Caserío «Zamalbide». El 4 de septiembre de 1988.

58. Azcarate (Azkarate): Inés Liceaga Garmendia, 67 años. Caserío «Mokoroa». El 28 de julio de 1979.

59. Baliarrain: Antonia Garmendia Garmendia, 65 años. Caserío «Garate Bekoa». El 3 de agosto de 1980.

Ukendue bear denean, kutxarillen kertena erabili eta miñ gaiñean zabaldu. Beti kutxarille kerten garbiekin. Ukendue trapu batekin lotuta utzi.

Zornea atera arte egunean bein jarri<sup>60</sup>.

### **Pixike eltzeko**

San Joan goizean bedeinkatutako lintxusa loreak zartagin oliotan prejitu. Gero bi trapu tartean jarri eta bero-beroan pixiken gaiñean ipiñi, paiñuelo batekin lotuta. Onela egin pixike ondu arte<sup>61</sup>.

### **Pasmoa sendatzeko**

Pasmo belarrak bildu eta eltze batian egosi. Egosten diranean –minutu pare baten– barriñoia jarri eta emen belar da guzti eltzea jiratu.

Jiratutako ura, eltzetik barriñoira ateratzen da. Ordun, eltzearen ipurdi gaiñean orrazie jarri eta onen gaiñean, gurutze tankeran, goraizik irikita.

Elbarrie ontzien onduan eseri eta gaixo edo miñe artuta daukan alderdi ori manta batekin estali eta uran lurriñe artu, barriñoiko ura eltzera sartu arte<sup>62</sup>.

### **Pasmoa sendatzeko**

Enplastua egin. Bi baatzuri buru aletu eta esnetan egosi. Beste aldetik zartagi bat onela preparatu:

Bi tipule gorri txikitu eta olio pixka baten buelta bat eman. Argizari puska bat xerratu eta tipuletara bota, berdin jaboï arrunta puska bat, xerratuta au ere.

Egositako baatzurik ere tipuletara bota, ardi pixa eta ardo pixka batekin.

Zartagia surtan jarri eta naastu zurezko kutxarez. Mee xamarra ateratzen bada, ogirin apur bat erantsi, alik eta bear dun loditasuna lortu arte.

---

60. Betelu: María Dolores Goicoechea Sotil, 47 años. Caserío «Ipiarrea». El 29 de agosto de 1984.

61. Ichaso (Itxaso): María Zubillaga Oriozabala, 86 años. Caserío «Goitiko Sukaldea». El 9 de agosto de 1987.

62. Lizartza: Milagros Aizpurua Alcorta, 59 años. Caserío «Bengoetxea». El 15 de agosto de 1988.

Masa epeltzen utzi, eta epela dagoela belar txabalen gaiñean zabaldu, miña dagon tokin ipiñi eta arizko trapu edo benda batekin lotuta utzi, egun batetik besteraiño. Miña izanezkero, leenago aldatu, jaboï gatzurakin garbitu ondoren<sup>63</sup>.

### **Pasmoa sendatzeko**

Zartagin litro laurden bat olio jarri eta olio ontara berbena belarra ezean eskukada bat txikituta bota. Ordu pare batean egosten eduki, poliki-poliki, su atzean. Gero irazkian ontzi batera pasa eta berrogeitamar gramo argizari purua naastu eta urtu. Ondoren ontzi baten oztutzen utzi.

Bear danean kutxarilla batekin artzen da eta gasa baten zabaldu; pasmo gaiñean jarri eta trapu batekin lotu. Oerakoan jarri eta goizean kendu, egunez ere berriro jarri<sup>64</sup>.

### **Pasmoa sendatzeko**

Eskukada bat berbena belar ezeak txikitu eta olio apur batekin zartagin naastuaz pixka bat berotu. Gero arrautz baten zuringoa arrotu, zartagira bota eta dena pixka bat naastu. Tortilla bigun xamarra dagoala zapi baten zabaldu eta bereala pasmo gaiñean jarri, trapu batekin lotuta.

Ordu pare baten eduki eta berriro jarri, esan deguna egiñez, egunean iru bat aldiz<sup>65</sup>.

### **Pikorra lertzeko**

Kaxota baten olio pixka bat, kutxara bat zerri manteka eta baita ere jaboïa, errexiña eta argizari puru puxkatxo bana jartzen dire. Kaxota ontara sagu-biarri belar puxka batzuk ere bota. Dena ondo egosi, ondoren irazkian pasa eta ontzi baten oztutzen utzi.

Oztutzen dalik belar beltz baten jarri eta belarra pikor gaiñean, au lertu eta zikiña atera arte<sup>66</sup>.

---

63. Lizartza: Milagros Aizpurua Alcorta, 59 años. Caserío «Bengoetxea». El 15 de agosto de 1988.

64. Oreja: María Malcorra Arrastoa, 55 años. Caserío «Altsiturrita». El 1 de junio de 1982.

65. Oreja: María Malcorra Arrastoa, 55 años. Caserío «Altsiturrita». El 1 de junio de 1982.

66. Zubieta (Navarra): Josefa Loyarte Elizalde, 45 años. Casa «Fermiñenea». El 11 de agosto de 1984.

### **Aunditsuaren zornea tiratzeko**

Zartagia kutxara pare bat oliokin prestatu, eta ontzi ontara, surtatik zerbait atzeratuaz, eskukada berbena belar freskua eta tipula pixka bat txiki-txiki egiñak bota.

Gero arrautzaren zuringoa batitu eta zartagira ustu. Emen dena bat egin, zurezko kutxaraz buelta pare bat emanaz.

Azkenik, erabat oztu gabe, enplasto bi zapi tartean zabaldu eta gaixo dagon lekuan jarri. Ordu pare baten eduki eta berriro beste enplasto batekin gauz berdiña egin<sup>72</sup>.

### **Berezkoa**

Zartagin olio erretzen jarri, zortzi baatxuri ale eta eskukada bat pasmo belarrekin, eta dena gorritu arte naastu, makil edo zali batekin.

Gorritzea lortzen danean baatxurik eta pasmo-belarrak atera eta beste gauza aukeratu: Ezkoa, erretxiña, sego ondua; jaboia ura ikusi gabekoa eta gatzaria. Bereala dena zartagin ondo naastu eta zapi txuri baten bitartez ontzi batera irazi.

Ukendua bear danean, zapitxo baten zabaldu eta zaurituaren gainean jarri, trapu batekin lotuaz. Onela egin, zauria sendatu arte<sup>73</sup>.

### **Berezkoa**

Pasmo belarra, illarrondokoak eta balsamo eta ostu txabal belarrak artu, lau eskukada denen artean.

Belar aukeratu denak uretan garbitu, legortu eta labana batekin ool baten gainean garbitu.

Zartagi baten belarrak prejitzeko ainbataiñe olio jarri eta olio ontara belarrak bota. Gero ardo beltz porrosta batekin prejitu osotara txiurtu edo beztu gabe. Prejiketa onen azken-azkenean ogi apurrek gainetik bota exko-exko gelditu dedin, geiegi legortu gabe. Dagon bezela zapi lodi batera atera eta miñe edo berezkoan gainean jarri, alden beroena, paiñolo batekin ongi lotuta<sup>74</sup>.

---

72. Anoeta: Gregoria Irazusta Beguiristain, 75 años. Caserío «Sarobe». El 21 de julio de 1985.

73. Baliarrain: Antonia Garmendia Garmendia, 65 años. Caserío «Garate Bekoa». El 3 de agosto de 1980.

74. Betelu: María Dolores Goicoechea Sotil, 47 años. Caserío «Ipiarrea». El 29 de agosto de 1984.

### **Zingrea (Zingerea?)**

San Joan Belar bedeinkatuetatik bederatzi puxka egin eta lurrean pertza bat jarri su-brasa barrenean duala. Ondoren bederatzi puxka auetako bat artu eta berarekin miña daukan tokian ziñatu, esanez: Zingre, zingre, sor, nik etzaitut sendatzen, baizik Aitak, Semeak eta Espiritu Santuak. Gero belar puxka auek pertzara bota.

Ori bera beste zortzi belar puxkakin egin eta auen lurriña miñari eman. Ikusi duguna bederatzi egunez egin, goizian edo gabean, beti ordu berean.

Aipatutako San Joan belarrak auek dire: Arrosak, inyureak eta San Joan loreak<sup>75</sup>.

### **Zingiria**

Ur bedeinkatuan bederatzi erramu ostu bedeinkatuak busti, banaka, banaka. Ostu bakoitzarekin miña ziñatu esanez: Zingiri/ sor/ zingiri/ salamon/ nik etzaitut/ sendatzen/ Aitak/ eta Semeak/ eta Espiritu Santu gabe.

Au bederatzi aldiz egin ondoren –aldi bakoitza ostu batekin–, ostu oiek denak ontzi batera bota eta surtan jarri.

Ostu oien kea miñari eman bederatzi aitagure errezatu arte<sup>76</sup>.

### **Berezkoa**

Aurren-aurrena gauza auek artu: Berbena ostu batzuek; pasmo-belarrak –berbenan erdia bezelatsu–; tipula buru txiki bat apurtu ondoren; jaboï puskatxo bat, kanika edo bostarri baten neurrikoa eta ura ikusi gabekoa, eta ezkoa. Argizari geiago, ukendu gogorra goa.

Au dena, ezkoa azkena dala, litro erdi bat exkax olioia daukan zartagi batera bota eta surtan atze-atzetik jarri, pixkanaka egin dedin.

Argizaria urtzen danean, beroan zapi zuri baten irazi kristalezko txarro batera, emen oztu dedin. Onela prest dago bear deneako.

Gantzuki au erabiltzeko beatz batekin artu eta zauritu edo gaixotutako lekua igurtzi, eta, ondoren, arizko zapitxo batekin estali. Azkenik, loturaz finkatuta utzi.

---

75. Erasan (Eratsun): Anastasia Bengoechea Retegui, 74 años. Casa «Biatenea». El 22 de julio de 1984.

76. Goizueta: Gertrudis Zubillaga Arrieta, 84 años. Casa «Fuentenea». El 21 de septiembre de 1986.



Adierazitako au bein da berriz egiten da, garbitu edo sendatu arte. Gantzuki edo ukendu onek zauria garbitzen du, zorne guztia atereaz<sup>77</sup>.

## **Zingiria**

San Joan belarretatik gutxienez iru klase artu eta bakoitzetikan bederatzi puskatxo egin.

Ondoren puxka auetako bakoitzakin miña dagon gaiñean ziñatu, itz auek esanez: Zingiri/ sor/ zingiri/ gei/ zingiri gurutzi/ zingiri/ salama/ etzaitut/ nik/ sendatzen. Aitaren/ Semearen/ Espiritu Santuaren/ bendizua/ senda zala/ Amen.

Gero kaxuela batera belar puxka guztiek bota, eta, bereala, eskuan denak batin artu eta miña dagon tokin berriro ziñatu leengo itz berdiñak esanez.

Ondoren kaxuela batera berriro bota eta su eman brasa pixka batekin. Miña mantaz tapatu eta belar auen lurriñe eman. Azkenik trapu batekin lotu eta bero-beruan eutsi. Emen esandakua iru aldiz egin. Goizin, egoardin eta arratsean<sup>78</sup>.

## **Pisika sendatzeko**

Pasmo-belarrak uretan egosi, ondoren belarrak kutxare batekin atera eta zapi txuri baten gaiñean jarri. Trapu oni berari buelta eman eta pasmo-belarrak xanpa-xanpa egin eskukin zapia joaz. Jotze au belarraren oriña atera dedin egiten da. Gero, nun dun miña an paratu eta ordu batzuetan eduki, zapi batekin lotuaz<sup>79</sup>.

## **Antras sendatzeko**

Zuldar gaiñean zapo bizia jarri zapi batekin lotuta, eta akabatu arteraiño eduki. Zortzi bat egun barrun akabatzen da zapoa eta ordurako antras sendatuta dago<sup>80</sup>.

---

77. Legorreta: Juana Gorostiza Garayalde, 41 años. Caserío «Mujuri». El 1 de julio de 1975.

78. Zubieta (Navarra): Josefa Loyarte Elizalde, 45 años. Casa «Fermiñenea». El 11 de agosto de 1984.

79. Saldías: Martín Mutuberria Erasun, 74 años. Casa «Olazarrea». El 9 de agosto de 1983.

80. Rentería: Antonia Arizmendi Zuloaga, 74 años. Caserío «Lubeltza Berri». El 9 de abril de 1989.

### **Sarna sendatzeko**

Arrosa edo sarna sendatzeko emakumezko batek aurra baraurik eskue-tan artzen zun eta sasi-arrosa batera joaten zan. Emen «arrosak arrosari» esanez aurrari iru buelta eman arros lore gaiñean, buelta bakoitzean «arrosak arrosari» esateari utzi gabe. Ondoren Aitagure bat errezatu. Gaixoa sendatzen ez bazan ondorengo aurren egunetan berriro esandako gauz bera errepikatu<sup>81</sup>.

### **Sarna sendatzeko**

San Joan egunean, goizean-goizik, larrugorrian, bulutzik edo bulutzgorrien inbuluzketu sagoiako eskartxan, oztu artio.

Sagoiean paratzen zuzten arropak<sup>82</sup>.

---

81. Goizueta: Gertrudis Zubillaga Arrieta, 84 años. Casa «Fuentenea». El 21 de septiembre de 1986.

82. (Lintzoain) Linzoain: Segundo Torrea Usoz, 83 años. Casa «Martxan». El 5 de octubre de 1986.

## **XI. Kapitularia Gaixotasun odontologikoa**

---

### **AGIÑEKO MIÑARENTZAT**

Patar txurie auean artu eta miña dagon lekuan geldi eduki. Gero, patarra bota edo eran<sup>83</sup>.

### **AGIÑEKO MIÑA ILTZEKO**

Aixkoraren burua trapu baten bildu eta arpegin mina dagon aldetik paratu, miña joan edo illartio<sup>84</sup>.

### **AGIÑEKO MIÑARENTZAT**

San Joan egunean bedeinkatutako lora-landaran txortiatik eskutakara bat egosi eta arpegia trapu batekin tapatuaz aren lurruna artu.

Lora-landarak auek dira: Txanpon lorak; sorbak; irak; larrosak; kra-beliñak; arto landarea eta gari burua<sup>85</sup>.

---

83. Berastegi: Amada Etxeberria Matxinea, 72 años. Caserío «Borda Txuri». El 4 de abril de 1975.

84. Juarbe (Suarbe) (Valle de Ulzama): José Villanueva Sagardia, 73 años. Caserío «Alor-txeko». El 27 de marzo de 1989.

85. Elgeta (Barrio de Larrabiltzear o Larrabilsiarra): María Ascasibar Ascasibar, 86 años. Caserío «San Juan». El 20 de septiembre de 1987. María Zabala Urcelay, 82 años. Caserío «Larrabiltxo». El 20 de septiembre de 1987.

## **FLEMOIA EDO AUNDITUA SENDATZEKO**

San Joan belar bedeinkatuetatik eskukadatxo bat egosi eta ur onekin gai-xotasuna lurrindu.

San Joan belar izenez ezagutuak auxek dire: Baso lorak edo San Joan lorak; arrosak; artamixek; ezpatak; arta landara; babarrun landara eta gari buruk<sup>86</sup>.

## **FLEMOIA SENDATZEKO**

Intxus lorea egosi eta ur onekin aoa garbitu eta kanpotik igurtzi, prezisona barrengo garbitasuna. Au egunean iru aldiz egin<sup>87</sup>.

## **AGIÑEKO ANDITSUA LERTZEKO**

Olio pixka bat zartagin jarri eta berbena belar batzuek bota. Guri-guri egin eta arraultzearen zuringoa batitu eta zartagira ustu. Emen buelta bat eman eta zapi txuri baten gaiñera pasa. Zapi au bueltatu eta miñaren gaiñin jarri eta eskukin ariñ-ariñ eutsi, oztu arte<sup>88</sup>.

---

86. Ezkio-Itsaso: Nicolasa Baztarrica Irizar, 60 años. Angel Idiaquez Zabalo, 60 años. Casa «Concejo». El 19 de Julio de 1971.

87. Tolosa (Barrio de Santa Lucía): Antonio Larrarte Mocorrea, 68 años. Caserío «Perrategi». El 2 de septiembre de 1977.

88. Zubieta (Navarra): Josefa Loyarte Elizalde, 45 años. Casa «Fermiñenea». El 11 de agosto de 1984.

## **XII. Kapitularia**

### **Gaixotasun otorrinolaringologikoa**

---

#### **EZTARRIKO MIÑARENTZAT**

Mermela ostu batzuek artu, txiki-txiki egin eta arrautz zuringoarekin pre-jitu eta ondo irabiatu. Arizko zapi baten irazi ondoren beste baten bildu eta epelean papoan edo eztarri gaiñean ipiñi<sup>89</sup>.

#### **EZTARRIKO MIÑA KENTZEKO**

Plantilla belarrak bildu eta iartu. Gero sakutxo baten jaso eta bear danean bi edo iru orri artu eta egosi. Ur ori eran edozein ordutan eta nai dan aña aldiz<sup>90</sup>.

#### **ZINTZURREKO MIÑARENTZAT**

San Blas egunean bedeinkatutako uretikan baso erdi bat artu<sup>91</sup>.

#### **EZTARRIKO MIÑA SENDATZEKO**

Gaztain arbolaren adar bateri eskukada erdi bat azala kendu, eta iru bat gaztaiñen morkotsakin amar minututan uretan egosi. Gero, ur onekin gargarak egin<sup>92</sup>.

---

89. Amezketa (Barrio de Ugarte): Micaela Amenabarro Iturrioz, 65 años. Caserío «Zuin». El 30 de junio de 1985.

90. Berastegi: Amada Etxeberria Matxinea, 71 años. Caserío «Borda Txuri». El 7 de mayo de 1974.

91. Errazu (Erratzu): Angela Urrutia Irungaray, 85 años. Caserío «Aldakotxeke». El 4 de agosto de 1985.

92. Inza (Intza): Cándido Goicoechea Otermin, 72 años. El 17 de octubre de 1978.

## **ZINTZURREKO PASMOA SENDATZEKO**

Berbena maxo koskor bat bildu eta itzalean pixka bat legortu. Gero ostoa kendu eta auek zartagi bateko olio epel pixke batera bota. Bereala baratxuri ale bat edo bi txiki-txiki egin eta auek ere zartagira bota.

Ondoren arraultz bat edo bien zuringoa platera baten arrotu eta zartagira ustuz dena naasi-naasi taloa egin eta esku gaiñekin otz-beroa probatu.

Gero bi oyalen tartean zabaldu eta zintzur gaiñean jarri, zapi edo paiñuelo batekin lotuaz. Au egunen iru aldiz egin<sup>93</sup>.

## **SINUSITIS SENDATZEKO**

Iru bat eskukada berbena belarrak uretan garbitu eta legortzen utzi. Gero labana batekin txiki-txiki egin, ool baten gaiñean.

Zartagi baten belarrak prejitzeko ainbataiñe olio jarri eta olio ontara belarrak bota. Prejitu oso txiurtu edo beztu gabe. Prejiketa au egin bitartean iru arrautzen zuringoak batitu eta zartagira ustu. Dena naasi tortilla bat bezela utzirik. Bereala trapu zuri lodi batera atera eta beste zapi meegoko bat gaiñean jarri, gasa bat, adibidez, eta alden beroena miña dagon lekuan utzi, zapi batekin lotuaz, ongi oztu arte. Au egunean bein, iru egunez<sup>94</sup>.

## **SINUSITIS SENDATZEKO**

Berberanak ondo xeetu eta zartagiña batian olio ttantta batekin pixkat prexitu. Ondoren arrautz xuringua batituta naasi, tortilla bat bezala egiñez.

Gero apobelarrak artu eta auen gaiñera zartagiñeko tortilla atera. Be-realaxe zapi baten gainin zabaldu eta miña dagon lekuan paratu. Gaubaz paratu eta ondoko egun arte iruki, zapi edo bendaz lotuta<sup>95</sup>.

## **SINUSITIS SENDATZEKO**

Bi limoiren urari kutxare bat ezti naastu eta ur au edan, baraurik obeki<sup>96</sup>.

---

93. Leiza (Leitza): Simona Zabaleta Arrarás, 80 años. Casa «Peritza». El 31 de agosto de 1985.

94. Betelu: María Dolores Goicoechea Sotil, 47 años. Caserío «Ipiarrea». El 29 de agosto de 1984.

94. Donamaría: Rosa López Galilea, 56 años. Casa «Micheltonea». El 6 de agosto de 1984.

96. Leiza (Leitza): Simona Zabaleta Arrarás, 80 años. Casa «Peritza». El 31 de agosto de 1985.

### **SINUSITIS SENDATZEKO**

Berbena maxo koxkor bat bildu eta itzalean pixka bat legortu. Ostoak kendu eta auek zartagi bateko olio epel pixke batera bota. Bereala ale bat edo bi baratxuri txiki-txiki egin eta auek ere zartagira bota.

Ondoren arraultz bat edo bien zuringoa platera baten arrotu, eskusarbakin, eta zartagira ustuz dena naasi-naasi taloa egin eta esku gaiñekin otz-beroa probatu.

Gero bi oyalen tartean zabaldu eta gaixo dagon parean jarri, trapu batekin lotuaz. Au egunean iru aldiz<sup>97</sup>.

### **SINUSITIS SENDATZEKO**

Olio pixka bat zartagin jarri eta berbena belar batzuk bota. Guri-guri egin eta arraultzearen zuringoa batitu eta zartagira ustu, emen buelta bat eman eta trapu zuri baten gaiñera pasa. Zapi au bueltatu eta kopetan gaiñin jarri eta eskukin ariñ-ariñ eutsi, oztu arte<sup>98</sup>.

### **BELARRIKO MINARENTZAT**

Olio epeldu eta zapi txuri txiki batekin bi tanto sartu, mindua daukan belarri zuloan. Gero zapitxoa bertan utzi, belarri zuloan alegia<sup>99</sup>.

---

97. Leiza (Leitza): Simona Zabaleta Arrarás, 80 años. Casa «Peritza». El 31 de agosto de 1985.

98. Zubieta (Navarra): Josefa Loyarte Elizalde, 45 años. Casa «Fermiñenea». El 11 de agosto de 1984.

99. Berastegi: Amada Etxeberria Matxinea, 72 años. Caserío «Borda Txuri». El 4 de abril de 1975.

## **XIII. Kapituluia**

### **Begietako gaixotasunak**

---

#### **BEGIETAKO NEGARRA SENDATZEKO**

Arrosak egosi eta ur oneri azukre pixka bat bota eta goata batekin begik garbitu<sup>100</sup>.

#### **BEGIETAKO MIÑA SENDATZEKO**

San Joan egunean bedeinkatuetako arrosak artu eta uretan egosi. Ur au epeltzen danian, bertan goata busti eta onekin gaizki dagon begia garbitu. Au batezere goizian egin<sup>101</sup>.

#### **BEGIETAKO MIÑARENTZAT**

San Joan goizean bedeinkatutako arrosa batzuk egosi eta ur arekin zapi batez baliatuaz begik garbitu. Au egunero egin, sendatu arte<sup>102</sup>.

---

100. Azpiroz (Azpirotz): Patricia Arguiñarena Soroeta, 68 años. Caserío «Iriartea». El 16 de agosto de 1982.

101. Erasun (Eratsun): Anastasia Bengoechea Retegui, 74 años. Casa «Biatenea». El 22 de julio de 1984.

102. Ichaso (Itxaso): María Zubillaga Oriozabala, 86 años. Caserío «Goitiko Sukaldea». El 9 de agosto de 1987.



## Landara-izenen aurkibidea euskaraz eta beren egokiena gaztelaniaz

---

### A

*Aiena*, Basurde *patata*, Nueza.  
*Anís belarra*, Hinojo  
*Apobelarra*, Aro. Comida de culebras.  
*Arrosa*, Rosa.  
*Arta landara*, Planta de maíz.  
*Artamixa*, Artemisa. Ajenjo.  
*Arto landarea*, Planta de maíz.  
*Azenziua*, Ajenjo.  
*Azuzena*, Azucena.

### B

*Babarrun landara*, Planta de alubia.  
*Balsamo belarra*, Hierba callera.  
*Baso lora*. *San Joan lora*, Margaritón.  
*Basurde patata*, *Aiena*, Nueza.  
*Belar azia*, Simiente de hierba.  
*Belar beltza*, Hierba mora.  
*Belar-onak*, Plantas bendecidas en el día de San Juan Bautista.  
*Belar txabala*, Llantén mediano.  
*Berbena*, Verbena.  
*Berberana*, Verbena.  
*Bermenena*, Verbena.

### E

*Elorri beltza*, Endrino. Espino negro.  
*Elorri xuria*, Espino albar.  
*Erle bedarra*, Hiedra terrestre.  
*Erramu ostoa*, Hoja de laurel.  
*Erromeroa*, Romero.  
*Ezpata*, Espadaña? Lirio común?

### G

*Gari burua*, Espiga de trigo.  
*Garoa*, Helecho.  
*Garua*, Helecho.  
*Gaztain ostoa*, Hoja de castaño.  
*Geizi ostoa*, Hoja de cerezo.

### I

*Illarrondokoa*, Aro. Comida de culebras.  
*Intxaur ostoa*, Hoja de nogal.  
*Intxensue*, Saúco.  
*Intxusa*, Saúco.  
*Intxusa ostoa*, Hoja de saúco.  
*Inyurea*, Saúco.  
*Inyusa*, Saúco.  
*Iodo belarra*, Celidonia. Hierba de golondrinas.  
*Ira*, Helecho.

### K

*Karraskillo*, Carrasquilla.  
*Krabeliña*, Clavel.

### L

*Larremillua*, Manzanilla.  
*Larrosa*, Rosa.  
*Lintxusa*, Saúco.  
*Liña azie*, Simiente de lino.  
*Liria*, Lirio.  
*Lizar ostoa*, Hoja de fresno.

## M

*Malba*, Malva.  
*Malbabiskoa*, Marvavisco.  
*Malma*, Malva.  
*Manzanilla*, Manzanilla.  
*Mermela*, Verbena.  
*Mostaza*, Mostaza.

## O

*Ollarpoztana*, Cola de caballo.  
*Osiña*, Ortiga.  
*Osiñe*, Ortiga.  
*Osto-txabal belarra*, Llantén mediano.

## P

*Pasmo belarra*, Murajes.  
*Pita belarra*, Pita.  
*Plantilla belarra*, Llantén.

## S

*Sabuko*, Saúco.  
*Sagu-biarri belarra*, Oreja de ratón.  
*Sakutie*, Saúco.  
*San Joan belarrak*, Plantas bendecidas en el día de San Juan Bautista.

*San Joan lora. Baso lora*, Margaritón.  
*San Joan lorea*, Margaritón.  
*San Joan lore oriya*, Tanaceto.  
*Sauka*, Saúco.  
*Sauko lorea*, Flor de saúco.  
*Sorba*, Milenrama.  
*Sube belarra*, Aro. Comida de culebras.  
*Suhar hostoa*, Uña de caballo o tusí-lago (según P. Lhande). Heliotrophe d'hiver (según Althabe).

## T

*Tila lorea*, Flor de tilo.  
*Txanpon belarra*, Hiedra terrestre.  
*Txanpon lora*, Margarita.  
*Txindorri belarra*, Té de Méjico. Pazote.

## Z

*Zaingorria*, Hierba de San Roberto.  
*Zakur mia*, Lengua de perro.  
*Ziguña*, Malva.  
*Zinta belarra*, Crocosmia. Tritonia, (En este caso desconozco el nombre de esta planta en castellano).